


Euskal AEko eraikuntzako kostuek lehengoan iraun zuten 2008ko urrian

Azken hamabi hilabeteetan (2008ko urria, 2007ko urriarekin alderatuta) eraikuntzako kostuak %6,9 gehitu ziren

2008ko urrian, Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizea ez zen aldatu (%0,0) , aurreko hilaren aldean, eta urriko urte arteko tasa %6,9ra iritsi zen, Eustaten datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2008



(*)Gehikuntza urriko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT

2008ko urrian, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); ezta lehengaien kostuak ere, aurreko hilaren aldean.

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaerak ezberdinak izan zituzten: aurreko hilaren aldean %-1,7 jaitsi zen Obra Zibilekoa; eta Eraikuntzako lehengaien kostuak %0,4 igo ziren. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak intentsitate ezberdinak erakusten ditu. Eraikuntzako lehengaien kostuak %6,8 hazi dira eta Obra Zibilekoenak %8,2.

Urrian, irailaren aldean, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan dituzte: Ez-metalezko meak (%1,7); Energia elektrikoa eta gasa (%0,8), Kimika-industria (%0,8) eta Material elektrikoa (%0,7) adarretako lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten ondokoek: Petrolioa fintzea (%-11), Metalurgia (%-3,1), Material elektronikoa (%-0,9) eta Zurgintza (%-0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenak ondokoak izan dira: Energia elektrikoa eta gasa (%27,2), Petrolioa fintzea (%12,8), Ura (%11,4) Metalurgia (%11,3) eta Ez-metalezko meak (%10,5). Bestalde, urteko arteko prezioetan (2008ko urria, 2007koaren aldean), igoera txikiagoak izan zituzten Zurgintzak (%1,9), Ez-metalezko industriak (%2,4) eta Makineriak (%2,6).

Eraikuntzaren kostuen indizea. Euskal AE. Datu aurrerapena. 2008ko urria.

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	116,7	0,0	6,9	6,1
ERAIKINAK	116,2	0,3	6,7	5,9
OBRA ZIBILA	118,6	-1,3	7,6	6,8
LEHENGAIEN KOSTUA	116,8	0,0	7,1	6,1
ERAIKINAK	116,1	0,4	6,8	5,8
OBRA ZIBILA	119,3	-1,7	8,2	7,1
LAN-ESKUAREN KOSTUA	116,6	0,0	6,3	6,3

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es